

**ITSAS APARRAK NARAMA**  
Garazi Ansa Arbelaitz, 15 urte  
*Oiartzun*

Itsaso nabarra,  
ludia ttipitzen duen itsasoa,  
ene behatzek laztantzen.

Eskua itxi,  
baina  
joan da,  
ezin eutsi,  
ezin neure egin.

Urrats bat aurrera  
hondar hezean barna,  
atzean,  
oin lorratza  
olatuak darama,  
ene bizipenak  
sentipenak  
moduan.

Burua jalgi ortzira,  
ilargia lotsati,  
itsasoan du isla eder.

Itsaso aparra  
ene zangoak laztantzen,  
joan,  
etorri,  
joan..  
ibilbide amaiezina,  
kexatu,  
unatu,  
pausatu barik.

Beste urrats bat,  
beste lorratz bat,  
hau ere itsasoak darama  
ez dit denbora gehiago eman gura  
ez beste ahalegin baterako  
ez eta akatsak zuzentzeko  
benetan maitatzeko.

Gatibu nauka denborak  
hareazko erlojutik erortzen den  
hondar ale bakoitzeko,  
ene bizi zatia darama,  
eta ni hemen  
isiltasunaren melodia xumea  
dudalarik alboan,  
ene hondar aleak noiz amaitu zain,  
azken egunsentiaren zain.

Beldurraren zainek  
bihotza didate ostu,  
ezin jakin,  
zer dudan zain,  
zer espero,  
soilik  
iluntasuna.

Haizea zait mintzo  
ene oroitzapen alai,  
zein tristeez,  
inoiz gauzatu ez diren  
ametsez.

Beste urrats bat,  
eta nola ez,  
lorratz bat,  
itsas aparrak  
ortzimugaren bila doan  
txalupatxorantz darama,  
neure kostaldetik urrun.

Ekiak ilargia ezkutarazi du,  
azken egunsentia bidean da,  
bidean  
uhinek ostu dizkidaten  
ene azken hondar aleekin batera.